



IGANTZIKO UDALA

BIDASOAKO BIDE BERDEAREN MOLDAKETA ETA EGOKITZE LANEN OBRA KONTRATUAREN LIZITAZIOA

**-B GUTUNAZALA IREKITZEA (FORMULA BIDEZ KUANTIFIKATU DAITEZKEEN IRIZPIDEEN
DOKUMENTAZIOA)-**

AKTA ZUZENKETA

2022ko azaroaren 24an Igantziko Udaleko ordezkariak batu ziren, plegu arautzailearen 14. klausulan xedaturikoaren arabera, B gutunazala irekitzeko.

B gutunazala ireki ondoren EXCAVACIONES MIKEL UBIRIA, S.L. enpresaren eskaintza baztertu egin zen, plegu arautzailearen 13. klausulan xedaturikoari jarraiki, eskaintza anormalki baxua izan zela.

Horrela bada, Bidasoako bide berdearen moldaketa eta egokitze lanen obra kontratua I.M. ARRIXKO IGELTSERITZA, S.L. enpresari esleitzea proposatu zen. Horrela bada, 178/2022 Alkate Ebazpen bidez aipatuirko lan kontratua behin behinean esleitu zitzaion I.M. ARRIXKO IGELTSERITZA, S.L. enpresari eta plegu arautzailearen 18. klausulan xedaturiko dokumentazio aurkezteko 7 egun naturaleko epea ireki egin zen.

Lizitazioaren prozeduran akats bat egin zela ikusirik, ez baitzen Kontratu Publikoei buruzko 2/2018 FL 98. artikuluan xedaturikoa bete, hau da, ez zen 5 eguneko epea eman EXCAVACIONES MIKEL UBIRIA, S.L. enpresari aurkezturiko eskaintza justifikatzeko baztertua izan aitzinetik, 183/2022 Alkate Ebazpen bidez 178/2022 Alkate Ebazpena indargabetu eta 5 eguneko epea ireki egin zen EXCAVACIONES MIKEL UBIRIA, S.L. enpresak aurkezturiko eskaintza justifikatu zezan.

Horrela, EXCAVACIONES MIKEL UBIRIA, S.L. enpresak 5 eguneko epearen barruan aurkezturiko eskaintza ekonomikoaren justifikazioa aurkeztu zuen. Era berea, 2022ko abenduaren 22an obraren zuzendaritza eginen duen Juan Bautista Guallart Vega ingeniariak aldeko txostena eman zion aurkezturiko eskaintza ekonomikoari.

Gauzak horrela, EXCAVACIONES MIKEL UBIRIA, S.L. enpresaren eskaintza ekonomikoa ONARTU egiten da.

Jarraiki, hemen adierazitako enpresek aurkezturiko B gutunazalean xedaturiko datuak kontuan harturik, honako hauek izanik aurkezturiko proposamenak eta bakoitzaren puntuazioak:

ENPRESA IZENA:	IFK ZENBAKIA:	ESKAITZA EKONOMIKOA (90)	LANGILE KOPURUA (10)	GUZTIRA	HURRENKERA
SASOI ERAIKUNTZAK, S.L.	B31544075	105.339,00 (85,98)	2 (4)	89,98	3º
MENDEBERRIA ESKABAZIOAK, S.L.	B71034631	110.581,37 ()	0	81,90	4º
EXCAVACIONES MIKEL UBIRIA, S.L.	B31738131	100.639,90 (90)	2 (4)	94,00	1º
I.M. ARRIXKO IGELTSERITZA, S.L.	B71143911	112.336,63 ()	5 (10)	90,63	2º



IGANTZIKO UDALA

Beraz, Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen 97. artikuluan xedaturikoa ikusirik eta plegu arautzailearen 16. klausulan xedaturikoaren arabera, Bidasoako bide berdearen moldaketa eta egokitze lanen obra kontratua EXCAVACIONES MIKEL UBIRIA, S.L. (B31738131) enpresari esleitzea proposatu da.

Eta horrela jasota gera dadin eta dagozkion ondorioak izan ditzan, honako akta hau sinatzen dugu.

Igantzin, 2022ko abenduaren 23an.

ALKATEA,

MAHAKIDEA 1,

IDAZKARIA,

Juankar Unanua Navarro

Manuel Telletxea Iparraguirre

Nagore Madariaga Iriarte